

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Kontsumoko ikuskaritzetatik etorritako jakiak Elikagaien Bankuari eman dizkio

*Gainera, 30.000 euroekin finantzatu du beharra duten pertsonentzat erakunde horrek egiten duen elikagaien doako hornikuntza*

Viernes, 28 de septiembre de 2012

Nafarroako Gobernuak Elikagaien Bankuari Kontsumo eta Arbitrajeko Zerbitzuaren ikuskaritzatik etorritako jaki-sorta bat eman dio. Zerbitzu horrek ikuskaritzak aldi behin egiten ditu egiaztatzeko elikagai-produktuen etiketatze, konposizio eta abarrei buruzko araudiak betetzen direla. Kontserbak (alkatxofak, ilarrak, besteak beste) eta ontziratutako produktuak (zerealak, esaterako) eman dira, 200 kilo inguru.



Ezkerretik eskuinera: López, Yoldi, Alli eta Almagro, elikagaiak emateko unean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak ere 30.000 euroekin finantzatu du erakunde horrek egiten duen proiektua, beharra duten pertsonen elikagaiak doan emateko.

Jakiak gaur goizean eman dizkio Iruñean Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Iñigo Alli-k Nafarroako Elikagaien Bankuko lehendakari Carlos Almagro-ri. Ekitaldian ere izan dira, Kontsumo eta Arbitraje zerbitzuko zuzendari César López Dios eta Elikagaien Bankuko lehendakariorde Gregorio Yoldi. Aurrez, bilkura bat egin dute eta bertan ezarri dira, Gizarte Politika eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak aldi behin nola eta zer eratan emango dituen egiten dituen aldizkako ikuskaritzen kontura biltegitratzen diren produktu guztiak. Gaurko ematearekin, Iñigo Allik adierazi du Nafarroako Gobernuaren nahia dela, "era sinboliko batean bada ere, une gogor hauetan Elikagaien Bankuak egiten duen lan sozial bikain horri laguntza ematea".

Nafarroako Gobernuaren Kontsumo eta Arbitrajeko Zerbitzuak, besteak beste, elikagai, drogeria edo burdindegiko produktuen kontrol sistematikoa egiten du, merkatuan salgai daudenak. Elikagaien kasuan, merkataritza-establezimenduetan produktu beraren hiru lagin hartzen ditu eta haietako bat aztertzen du. Arazo bat edo zerbait betetzen ez dela hautematen bada, azterketa errepikatzen du hartu dituen beste laginekin; aldiz, emaitza zuzena izan bada, ez du jada gainerako produkturik erabiltzen.